

Pentsamenduaren polizia zelatan

Koldo Sagasti

Astlehenean “Armiarma” izeneko polizia operazioaren berri izan genuen. Es-

painiako Guardia Zibilak 21 lagun eraman zituen atxilo sare soziale-tan argitaratutako iritziengatik. Twitterreko 140 karaktereetan go-goeta gaitzesgarriak partekatzea leporatu zien epaileak. Egoera ez da berria, lehen ere izan dira Interneten plazaratutako iritziengatik auzitegira bidali dituztenak, baina oraingoan inplikatu kopuruak eta sarekadaren inguruan antolatuta-ko zirkuak berebiziko oihartzun mediatikoa eman diote aferari.

Izan da horrelako testuingururik iragarri zuenik. 1947an George Orwell Pentsamenduaren Polizia irudikatu zuen. Orwellen “1984” eleberrian ustezko polizia-erakunde horrek hiritarren pentsamenduak ikuskatzen zituen inork sistema-rentzako hausnarketa arriskutsurik egin ez zezan, eta “pentsamendu txarrik” zeukana 101. Gelara –Auzitegi Nazionalaren antzeko toki bat– eramaten zuten, bertan ideia mehatxagarri horiek ezabarazte-rainoko torturak egiteko. Pentsamenduaren Poliziak telepantailak baliatzen zituen jendearen mugimendu oro zelatatze-ko, egungo ordenagailuen pareko mikrofono- hornitutako pantaila batzuk, eta hiritarrak behartuta zeuden etxe-an zein lantokian tramankulu ba-na izatera. Ordenagailuak existitu ere egiten ez ziren garaian idazle britainiarrak gure pentsamen-duak ikuskatzen dituzten elektro-tresnak irudikatu zituen Anaia Handi orojakilearen zerbitzura.

“1984” eleberriko egilea, 30 urte-ko aurrea hartuagatik, oso fin ibili zen etorkizuneko gizartea aurrei-kusten. Gure zorionerako, gaurko Pentsamenduaren Polizia orain-dik ez da gai gure gogoeta intimo-enak irakurtzeko; horietatik egiten dugun adierazpen idatzia baino ezin du ikuskatu. Benetan pentsa-tzen dudana ikusteko gai balira, gaur gauean Anaia Handiak ezin-go luke begirik bildu. •



diaren proposamen aurrera-koiek 77 emakume ipini dituz-te alkate karguetan.

«Hautagaitza horiei esker, hiru hiri garrantzitsu (Diyar-bakir, Van eta Mardin) emaku-meek zuzenduko dituzte. Tur-kia osoan bi alderdi nagusiek hamahiru emakume baino ez dituzte jarri maila bereko kar-guetan, AKPk sei eta CHPk zaz-pi», azaldu du Martorellek.

Iazko urtarrilaren 16an ehunka mila lagun elkartu ziren Diyarbakir hirian, Parisen erail berri zituzten Sakine Cansiz, Fidan Dogan eta Leyla Soylemez PKK-ko ekintzaileei ongiatorria egiteko. Hiru emakumeen hilketak oihal moreen gainean jarri eta PKKren banderekin estali zituzten.
GAUR8

bazterketaren eta sexu indar-keriaren aurkako borrokari eusten baitiote. «Horregatik esan daiteke Ekialde Hurbile-an emakumeak duen sosten-gurik garrantzitsuena herri kurdua dela, eta emakume kurduen borroka herrialde musulman guztietako emaku-meentzat erreferentzia dela. Horregatik egiten zait ulergai-tza Mendebaldeko erakunde feministek borroka honekiko agertu duten axolagabekeria».

«Begi bistakoa da arabiar munduan iraultza sexuala egi-teko dagoela», esan zion GARA egunkariari Santiago Alba ana-listak. Kurduen ekimena imita-tu beharko al lukete arabia-rrek? Horixe galdetu diogu Tunisian bizi den idazleari. «Garrantzitsua eta imitatze-ko modukoa da, baina ezin dira era mekanikoan lotu ezkerra, emakumearen parte hartzea eta islamismoaren aurkako ja-rrera. Sudango Parlamentuan, esaterako, Frantziakoan edo AEBetakoan baino emakume gehiago dago. Gauza bera ger-tatzen da iraultzaren ondoren-go Tunisiako Parlamentuan ere. Legeak ezarritako pareki-detasuna betetzera ia-ia iristen den talde bakarra Ennahda is-lamista da (89 parlamentaritik, 39 emakume). Arabiar mun-duan matxismoa ez da islamis-moaren ondare eskusiboa eta, gainera, politika kontserbado-rea egin daiteke emakumeen laguntzarekin. Kurduak sal-buespen bat dira, Turkian zein Sirian, bertako borrokaren ezaugarri bereziengatik. Ara-biar ezkerriari eskatu beharko genioke kurduen borrokari ja-ramon gehiago egiteko, gehia-go laguntzeko, bai feminismo-ari dagokionez, bai askapen nazionalari dagokionez».

Erreferentzia

Esportatzeko moduko ekime-na al da BDPrena? Manuel Martorellek gogorarazi digu siriar Estatuan autonomia kurdua eraikitze-ko ahalegine-an ere sekulako protagonis-moa dutela emakumeek, eta gauza bera gertatzen dela ira-kiar eta irandar estatuetan ere, oso egoera zailean egonda ere,